



EUSKARATZEKO ESKULIBURUAK PROPOSATZEKO DEIALDIAREN EBAZPENA

Euskaratzeko Eskuliburuak Proposatze Deialdiaren barruan (EPPD), deialdiaren ebazpena argitaratzen dugu. Ebazpen honen bidez, eta UPV/EHUko Euskarazko Aholkularitza eta Testugintzaren arloko zuzendari eta Euskara Zerbitzuaren zuzendari naizen aldetik, eta EPPD deialdian jaso ditugun proposamenak aztertu eta gero, eskuliburu horien itzulpen-prozesua abian jarri nahi dugu, oinarrietan ezartzen zireen baldintzak aintzat hartu eta gero.

Taula batean bildu ditugu jaso ditugun proposamenak; hurrenkera alfabetikoan jarri ditugu eskuliburuak.

Eskuineko zutabeetan dator eskuliburu bakoitzaren kasuan onartua izan den ala ez; ezezko kasuetan, arrazoa ematen dugu; baiezkoaten, berriz, lehentasunen hurrenkera bat finkatu dugu, eta eskuliburu bakoitzari bere lehentasun-maila ere ezarri diogu (arloaren beharren arabera, erabiliko duten ikasleen kopuruaren arabera, eta azken urteetan argitaratutako eskuliburuaren arloaren arabera); kakotx artean jarritako zenbakien bitartez markatu dugu lehentasuna:

- Lehentasun-maila altua: [1]
- Lehentasun-maila ertaina: [2]
- Lehentasun-maila baxua:[3]

Lehentasun-maila altuena duten liburuak ([1]) itzultzen orain hasiko gara, 2024an itzuliak eta argitaratuak izateko asmoz. Gero etorriko dira lehentasun-maila ertaina dutenak ([2]), 2025ean argitaratuko ditugunak, eta azkenik, 2026an argitaratuko ditugunak, lehentasun-maila baxuagokoak ([3]).

Liburuaren egile-eskubideak lortuak ditugunean, liburu bakoitzaren proposatzailearekin jarriko gara harremanetan, itzulpenaren inguruko kontuak lotzeko: begiraletza teknikoa egitea, lanaren metodologia, epeak, eta abar.

Deialdi honetako eskuliburuaren sorta honekin, 2026ra arteko eskuliburu itzulien zikloa amaitutzat ematen dugu. Urte horretan aurreikusten dugu irakasle-ikertzaileen proposamenak biltzeko deialdi berri bat egitea.

Hona eskuliburuak biltzen dituen taula.

Izenburua	Egilea(k)	Orri- aldeak	Euskara Zerbitzuaren erabakia
<i>Andar entre libros. La lectura literaria en la escuela.</i>	Teresa Colomer	280	BAZTERTZEKOA Oharra: Irakasleak proposatutako bi eskuliburuaren artean bestea aukeratu dugu
<i>Colonialismo. Historia, formas, efectos</i>	J. Osterhammel, Jan C. Hansen	184	ONARTZEKOA [2]
<i>Conservación y restauración de pintura sobre lienzo</i>	Ana María Calvo Manuel	383	ONARTZEKOA [3]
<i>Constitución y sistema de fuentes</i>	Francisco Balaguer	340	ONARTZEKOA [2]
<i>Dioses útiles. Naciones y nacionalismos</i>	José Álvarez Junco	316	BAZTERTZEKOA. Oharra Beste irakasle batek proposaturiko gai bertuko liburua hobetsi dugu: <i>Imagined Communities</i> ...
<i>Essentials of organizational behavior</i>	Robbins, S.P. eta Judge, T.A.	337	ONARTZEKOA [3]
<i>Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism</i>	Benedict Anderson	240	ONARTZEKOA [1]
<i>Introducing Phonetic Science</i>	M. Ashby & J. Maidment	222	ONARTZEKOA [2]
<i>Learning from Las Vegas</i>	R. Venturi, D. Scott Brown, S. Izenour	192	ONARTZEKOA [1]
<i>Narrativas literarias en educación primaria y secundaria.</i>	Teresa Colomer et al.	212	ONARTZEKOA [1]
<i>Probability</i>	Alan F. Karr	282	BAZTERTZEKOA Oharra: Irakasleak proposatutako bi eskuliburuaren artean bat aukeratu dugu
<i>Probability: an Introduction</i>	Geoffrey Grimmet eta Dominic Welsh	211	ONARTZEKOA [2]
<i>Short Lessons for Understanding some of the Origins of Modern Architecture</i>	Fernando Bajo Martínez de Murguía	86	ONARTZEKOA [1]
<i>Técnicas de Ingeniería genética</i>	M.D. Real, C. Rausell, A. Latorre	576	BAZTERTZEKOA Oharra: eskuliburu luzeegia EZren baliabideetarako.

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ebazpen hau sinatzen dut, azpiko egunean eta lekuan.

Leioan, 2023ko urriaren 17an

Jesus Mari Makazaga
UPV/EHUko Euskarazko Aholkularitza eta Testugintzaren arloko zuzendaria